



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-11-30eko PREMIAZKO EZOHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko azaroaren hogeita hamarrean, arratsaldeko 18:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, presazko ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

BILKURAREN PREMIAZKO IZAERA BERRESTEA.

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46.2 artikuluko b idazlerroan araututakoa kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Bakarra.- Nahikoa arrazoi badaudela kontsideratuz, bilkuraren presazko izaera berrestea.

BIGARRENGO GAIA

HITZARMENA SINATZEA BEIZAMAKO “OSTATU ZAHARRA” TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDE KONTRATUA AMAITZEKO.

Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espeditentea onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, besteak beste, Luxio Aizpuru Azpiazuri esleitu ziola, behin-behineko izaeraz, Beizamako “Ostatu Zaharra” tabernaren ustiapen eskubidea.

Ikusirik, hainbat arazo direla medio kontzesioari amaiera emateko beharra ikusten dela.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Onartzea, esleipendunek kontzesioari borondatezko amaiera ematea.

Bigarrena.- Esleipenaren amaiera ondokoak jasoko dituen hitzarmenaren arabera egingo da:

“Lehenik.- Esleipendun eta berme jartzaileak, borondatez amaiera ematen diote Beizamako “Ostatu Zaharra” tabernaren ustiapen eskubide kontratuari.

Bigarrenik.- Kontratua likidazio fasean sartuko da. Esleipendunak udalari ordaindu beharko dizkio ordaintzeke dauden errenta, elektrindarraren gastua, telefono gastua, gasa eta izan daitezkeen antzeko ohiko gastuak.

Hirugarrenik.- Ordaindu beharreko gastuak, jarria dagoen bermetik deskontatuko dira.

Laugarrenik.- Abenduaren hamabosta (2009/12/15) arteko epea izango dute esleipendun eta berme jartzaileak, taberna, ostatu eta etxebizitza hutsik utzi eta giltzak udalari itzultzeko.

Bosgarrenik.- Esleipendunak urte oso baterako kontratatu duenez erantzukizun zibileko poliza, honen itzulketa proportzionala egingo dio udalak (hots, polizaren azken eguna arte dauden egunak kontuan izanik).

Seigarrenik.- Esleipendunak proposamena egingo dio udalari, lehenak jarria duen eta bertan gelditzeko interesgarria izan daitekeen materialari buruz (tresnak eta suntsigarriak).”

Hirugarrena.- Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea, Beizamako Udaleko alkatea, hitzarmen hau sinatzeko eskuordetzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HIRUGARRENGO GAIA

“OSTATU ZAHARRA” TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDE KONTRATUA AMAITZEKO HITZARMENA SINATU EZEAN, KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO KADUZITATE JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.

Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, bestek beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

kontratazio-espedientea onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, besteak beste, Luxio Aizpuru Azpiazuri esleitu ziola, behin-behineko izaeraz, Beizamako "Ostatu Zaharra" tabernaren ustiapen eskubidea.

Ikusirik, hainbat arazo direla medio kontzesioari amaiera emateko beharra ikusten dela, Beizamako Udalak hitzarmen bidezko kontratu amaiera egitea eskaini dio esleipendunari.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Bakarra.- Hitzartutako kontratu amaiera egitea ez onartzekotan, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, besteen artean, kontratuaren iraungipenerako jardunbideari hasiera ematea.

LAUGARRENGO GAIA
ITURBURUKO UR BIDEAREN OBRA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA
ONARTU ETA ESLEIPENA EGITEA.

Udal honek, presazko eta larrialdiko lanak egin beharra ikusi du Iturburuko ur-bidean. Ekintza honek, Gipuzkoa32 dirulaguntza deialdiko diru-laguntza jaso dezakeen artean dago.

Proposatutako kontratazioari Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen jasotako esleipenerako bide eta moduak ezar dakizkioke. Esleipen-jardunbide hau aipatutako legearen 153 eta 155 artikuluetan aurreikusitako jardunbide negoziatua erabiliz izapidetuko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena publizitaterik gabeko jardunbide negoziatuaren bidez egin daiteke, Administrazio-Baldintza zehatzen agirian zehaztutako irizpide objektiboak erabiliz, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 161.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ikusirik, lanen presazko izaera dela eta, hiru enpresari aurrekontua eskatu zaiela jadanik, ondorengo emaitzarekin:

Azaldu diren interesdunak eta beraien proposamenak ondokoak dira:

- Arregi Itrugintza: egindako proposamenak ez du eskatutako lana bere osotasunean hartzen, honenbestez, baztertua gelditzen da.
- Egurki SL: epez kanpo erakutsi du bere interesa.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

- Otalastei SL: 61.948,35.-€ gehi 9.911,74.-€ BEZ gisa.
- Zabale Etxegintza: parte ezina jakinarazi du.

Guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Premiazko egoera kontuan izanik, espedientea onartzea.

Bigarrena.- Obra kontratua Otalastei SLri esleitzea.

Hirugarrena.- Depositua enegoera larria denez eta lanak lehenbailehen hastea komenigarria denez, errekeritza ohiko dokumentazioa udalean aurkezteko, azkeneko ordainketa egin aurretik (batetik, gizarte segurantzarekin eta ogasunarekin ordainketak egunean izatea; eta bestetik, administrazio publikoarekin kontratatze gaitasuna izatearen aitortpena).

Aztertze gairik ez dagoenez, 18:15etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.